

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

- 1 - Idazlaria ongi munitxo dea Espainolez.?
- 2 - Haren arabera zer da Espainolen itzala?
- 3 - Zerg beharzun emaiten dauku adibidez lumentzat?

②

ZERK EGIN DU ESPAINIA? 2

Jendakia¹⁴ guziek bezala hadituzke eta baditu espainolak ere bere on-gaitzak. Behinik behin, bana-bertze¹⁵, edozoin baino bi-hotzez atxikiagoa da espainola bere fedeari. Gizonez gizon ere, nehor guti dukezu espainola baino adixkide hobeagorik.

Baditu bertze asko alderdi on espainolak, bereziki espainol eskualdunak. Bere sor-lurra eta sor-etxea itsutuki maite ditu. Zernahi egin lezake; eman letzazke dituen guziak, bizia barne, bere nausitasuna eta bere zuzenak¹⁶ galtzerat utzi baino lehen.

Espainolaren aiphamen ederra orotan hedatua da.

Bizkitartean erran zaharren arabera, ez da munduan itzalik gabeko arbolarik.

Espainolaren itzaletarik bat... ez dut erraiten handiena, ez eta tipiena, bainan itzal bat ezin-ukhatuzkoa da frantsesak deitzen duena: *le goût du sang*. Odolaren *gostua*... ez dezaket bertzela erran eskuaraz.

Aspaldi ezagutua da: ez duela odolak izitzen¹⁷ espainola; ez eta ere gizonaren odolak.

Abere bat bezen gogo onez hilen derautzu espainolak gizona, hitz batetarik bertzean¹⁸.

Egun zortzi¹⁹ hemen aipatu dugu Mugerreko harri-athera-izaille langile batzuen arteko gudu izigarria. Hiru edo lau gizon gazte hanxet gelditu dire kanibet sistaka²⁰ itsuski kolpaturik²¹. Hetarik²² bat engoitik²³ hila da, edo gutitarik behar da bizi gelditu, bizkarretik bulharretara kanibeta sarthu ziotelakotz. Zer alimalkeria!

Erran dugu zein estakuru gutiz hasiak ziren kolpeka; eta gehiagoko makhurrik gabe, hiltzerainoko sarraskiak²⁴ han zituzten eginak. Nori? Frantses batzuei. —Eta nork? —Espainolek. Holako makhur hoitan bethi espainolak dire kolperik itsusienen emalleak.

batzuei = batzueri

③ ADITZ IKASKUNTZA.

- 31 - Gutti dukezu 32 - Badituzke.
 33 - Ez deza ket 34 - Hilen derautzu
 31. UKAN - Potentiel probable - Objet Sing

Nik duket ^(Present) = je peux l'avoir
 Hik dukek/n = tu peux l'avoir
 Zuk dukezu = vous pouvez l'avoir
 Harek duke = il peut l'avoir
 Guk dukegu = nous pouvons l'avoir
 Zuek dukezu = vous pouvez l'avoir
 Heiek dukete = ils peuvent l'avoir

32 UKAN - Potentiel probable - Objet pluriel

Nik dituzket ^(Present) = je peux les avoir
 Hik dituzkek/n = tu peux les avoir
 Zuk dituzkezu = vous pouvez les avoir
 Harek dituzke = il peut les avoir
 Guk dituzkegu = nous pouvons les avoir
 Zuek dituzkezu = vous pouvez les avoir
 Heiek dituzkete = ils peuvent les avoir

33 UKAN - Potentiel - Present

| <u>Objet singulier</u> | <u>Objet pluriel</u> |
|------------------------------------|------------------------------|
| Nik ukan dezaket = je peux l'avoir | ukan dituzaket ^{je} |
| Hik -u- dezakek/n = | " dituzkek/n ^{tu} |
| Zuk -u- dezakezu = | dituzkezu ^{vous} |
| Harek -u- dezake = | dituzke ^{il} |
| Guk -u- dezakegu = | dituzkegu ^{nous} |
| Zuek -u- dezakezu = | dituzkezu ^{vous} |
| Heiek -u- dezakete = etc | dituzkete ^{ils} |
| | ↓ |
| | Il peut l'avoir |
| | ↓ |
| | Ils peuvent les avoir |

① ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1. Idazlaria ongi munitxo dea Espainolez.?
2. Haren arabera zer da Espainolen etzala?
3. Zerg beharzun emaiten dauku adibidez lumentzat?

②

ZERK EGIN DU ESPAINIA? 2

Jendakia¹⁴ guziek bezala badituzke eta baditu españolak ere bere on-gaitzak. Behinik behin, bana-bertze¹⁵, edozoin baino bi-hotzez atxikiagoa da española bere fedeari. Gizonez gizon ere, nehor guti dukezu española baino adixkide hobeagorik.

Baditu bertze asko alderdi on españolak, bereziki español eskualdunak. Bere sor-lurra eta sor-etxea itsutuki maite ditu. Zernahi egin lezake; eman letzazke dituen guziak, bizia barne, bere nausitasuna eta bere zuzenak¹⁶ galtzerat utzi baino lehen.

Españolaren aiphamen ederra orotan hedatua da.

Bizkitartean erran zaharren arabera, ez da munduan itzalik gabeko arbolarik.

Españolaren itzaletarik bat... ez dut erraiten handiena, ez eta tipiena, bainan itzal bat ezin-ukhatuzkoa da frantsesak deitzen duena: *le goût du sang*. Odolaren *gostua*... ez dezaket bertzela erran eskuaraz.

Aspaldi ezagutua da: ez duela odolak izitzen¹⁷ española; ez eta ere gizonaren odolak.

Abere bat bezen gogo onez hilen derautzu españolak gizona, hitz batetarik bertzean¹⁸.

Egun zortzi¹⁹ hemen aipatu dugu Mugerreko harri-atheraizaile langile batzuen arteko gudu izigarria. Hiru edo lau gizon gazte hanxet gelditu dire kanibet sistaka²⁰ itsuski kolpaturik²¹. Hetarik²² bat engoitik²³ hila da, edo gutitarik behar da bizi gelditu, bizkarretik bulharretara kanibeta sarthu ziotelakotz. Zer alimalekeria!

Erran dugu zein estakuru gutiz hasiak ziren kolpeka; eta gehiagoko makhurrik gabe, hiltzerainoko sarraskiak²⁴ han zituzten eginak. Nori? Frantses batzuei. —Eta nork? —Españolek. Holako makhur hoitan bethi españolak dire kolperik itsusien enaileak.

batzuei = batzueri

③ ADITZ IKASKUNTZA.

31. Guti dukezu 32. Badituzke.
 33. Ez dezaket 34. Hilen derautzu
 31. UKAN - Potentiel probable - Objet Sing

Nik duket ^(Present) = je peux l'avoir
 Hik dukek/n = tu peux l'avoir
 Zuk dukezu = vous pouvez l'avoir
 Harek duke = il peut l'avoir
 Guk dukegu = nous pouvons l'avoir
 Zuek dukezu = vous pouvez l'avoir
 Heiek dukete = ils peuvent l'avoir

32. UKAN - Potentiel probable - Objet pluriel

Nik dituzket ^(Present) = je peux les avoir
 Hik dituzkek/n = tu peux les avoir
 Zuk dituzkezu = vous pouvez les avoir
 Harek dituzke = il peut les avoir
 Guk dituzkegu = nous pouvons les avoir
 Zuek dituzkezu = vous pouvez les avoir
 Heiek dituzkete = ils peuvent les avoir

33. UKAN - Potentiel - Present.

| <u>Objet singulier</u> | <u>Objet pluriel</u> |
|------------------------------------|---|
| Nik ukan dezaket = je peux l'avoir | ukan dituzaket ^{je peux les avoir} |
| Hik -u- dezakek/n = | dituzkek/n " |
| Zuk -u- dezakezu = | dituzkezu " |
| Harek -u- dezake = | dituzke " |
| Guk -u- dezakegu = | dituzkegu " |
| Zuek -u- dezakezu = | dituzkezu " |
| Heiek -u- dezakete = etc | dituzkete " |
| | ↓ |
| Il peut l'avoir | Ils peuvent les avoir |